



ZERO AZPITIK II

IKASKETA INPROPIOEN PROGRAMA

II
Huarte

ZERO AZPITIK II

IKASKETA INPROPIOEN PROGRAMA

Aurreko edizioan bezala, **Zero Azpitik** egitean ikasteko moduen ikerketa da. Arteari begira, hainbat ikuspuntuetatik jakintzen sorkuntza eta transmisioa praktikan jartzen ditu, gorputzetik, teknologikotik, materialetik, testualetik, soinutik edo ikusizkoetatik abiatuz.

Ikasturtean zehar egingo diren saio multzo gisa eratua dago. Egun artearen eszenan dauden gonbidatuek garatuak izango dira saioak, profesional hauek lantzen dituzten gaien inguruko teoria eta praktika uztartuko direlarik bertan.

Parametro hauetatik abiatuz, ikasketa programa, zentroaren programazioaren ildoaren pare joango da, bata, bestearen diskurtso, ideia eta formakuntza prozesuan sortu daitezkeen harremanekin elkar kutsatuz.

collagea

ehungintza
jabetzean

teoria-praktika

Lantegiak

2019-20 ikasturtean, 7 lantegi eskainiko dira eta bakoitzak 15 ordu inguruko iraupena izango du.

Nori zuzendua dago

Edozein diziplinetako artistei, ikasleei, ikertzaileei, arkitektoei, ingeniariari, historialariari edo egiteko modu propioak aurkitu nahi dituen pertsonari zuzendua.

Izen-ematea

- Lantegi bakarrean, batzuetan edo guztietan izena ematea posible da.
- Bi izen-emate data irekiko dira:
 - Irailaren 5etik, urriaren 28ra.
 - Tokiak betetzen ez badira, ikastaro bakoitza hasi baino hilabete bat lehenago.
- Zero Azpitik izen-emate kuota
 - 7 lantegi: 100 euro
 - Lantegi bakoitzeko izen-emate kuota: 20 euro
- Gehienez 15 lagun lantegi bakoitzean.
- Izena emateko, bete webguneko formularioa.
- Aurkeztutako dokumentazioaren arabera hautaketa egingo da 15 lagunek baino gehiagok izena ematen badute.
- Parte-hartzea baieztatzean, ordainketa egiteko kontu korrante zenbakia bidaliko da.
- Parte-hartzea ez da bermatua izango ordainketa egin arte.

Bidaia laguntza

100 euroko bost diru laguntza eskainiko dira lantegi bakoitzean Uhartetik 50 kilometrora baino gehiago bizi diren lagunentzat. Lehentasuna izango dute lantegi guztietan izena ematen duten pertsonak. Diru laguntza, lantegia bukatu eta saio guztietara joan ondoren jasoko da.

Ziurtagiria

Bost lantegi edo gehiago egiten dituenak, *Zero Azpitik II | Ikasketa inpropioen programa* ziurtagiria jasoko du.



2019

Azaroaren 4tik 7ra

15:30etik-19:30era

Risografia hastapena (II)

MARI CAMPISTRON

Lantegi honen helburua kolorearekin esperimentatzea eta inprimaketa risografikoan geruzak sortzeko modu desberdinak ezagutzea da. Adituei, zein, hasiberriei zuzendua dago. Partaideek lau egunez ikusi ahal izanen dute risografia inprimaketak dauzkan erabilera desberdinak. Risoa bikoiztaile digital bat da, serigrafiaren eta fotokopiaren arteko teknikak, txantiloiak eta kolore biziak erabiltzen ditu, honek, emaitza bizi eta koloretsuak eskaintzen dituen koloreen gainezarpenera ahalbidetzen dio erabiltzaileari.

Lehenengo egunean oinarrizko edukiak landuko dira, lan analogikoak eta kolore taulak inprimatuz. Bigarren egunean, bi tonutako argazkiak eta irudiak eta gezurrezko CMYK-k inprimatuko ditugu. Hirugarren egunean norberaren artelanekin ariko gara eta azkeneko arratsaldean hirugarren egunean ekoiztutako lanez osatutako fanzinea eginen dugu. Partaide guztiek fanzinearen ale bat eta astean ekoiztutako inprimaketa esperimentalen sorta bat eraman ahal izanen dute.

MARI CAMPISTRONEN INGURUAN

Mari Campistron (Baiona, 1991) ilustratzailea da Riso Sur Mer, inprimaketa risografikoaren aukera liluragarriak arakatzeko dituen eta egoitza Paris eta Glasgow artean duen kolektiboko kidea da. Bere praktika inprimaketaren prozesu eta fabrikatzean oinarritzen da, hainbat teknikarekin esperimentatzen du, esaterako, serigrafia, inprimaketa risografikoa, letren inprimaketa edo liho mozketa. Egun Pariseko Studio Fidèle enpresan lan egiten du inprimaketa teknikari gisa.

Lanerako gaia, lehenengo egunean proposatuko da, ez da beharrezkoa lehendik pentsatua ekartzea, hala baina, norberak bere sorkuntza material gogokoenak ekartzea komeni da (ordenagailua, pintzelak, margoak...). Guztion artean ideia burrunba eginen dugu!



2019

Abenduaren 16tik 19ra

16:30etik-19:30era

Ekoizpena eta egokitasuna praktika artistikoan

CARLOS IRIJALBA

CARLOS IRIJALBA-REN INGURUAN

Carlos Irijalba (Iruña, 1979)
Amsterdameko Rijksakademien
bizi da (2013-2014), Euskal
Herriko Unibertsitatean eta
Berlineko UDK-n graduatu zen
(2002). Marcelino Botin 2007/08
Beka, Generaciones 2009,
Sifting Foundation SF 2015 eta
Mondriaan Fonds Bewezen
Talent 2017, gisakoak jaso ditu
besteak, beste. Duela gutxi,
nazioarteko zentroetan egon da
ikusgai bere lana: Guangzhou
Triennalen, CAD Center Brussels-
en, Melbourneko MUMAn
eta New Yorkeko LMCC-n.
Twilight eta Unwilling Spectator
bezalako proiektuetan Irijalbak,
denboraren eta espazioaren
esperientzia erlatiboan
sakontzen du, erreferentzia
gisa giza eskala erabiliz. Skins
edo FFWd bezalako proiektu
berriagoetan, paraleloan dinamika
antropiko eta naturalak lantzen
ditu, bizigabeetan biziak, giza
dimentsioa erlatibizatze eta
testuinguruan kokatzeko.

Carlos Irijalbarek lana materiaren egoera
erlatiboan eta, bizigabe eta biziaren arteko
dinamika paraleloan ideian sakontzen da,
geologia bezalako diziplinetan oinarrituz, baita
honek sortutako industriaren eta kontsumoaren
ondorengo objektuak ere.

Gure praktika artistikoan, munduak behar al
du objektu hori? galderaren aurrean, kasuen
%99 erantzuna ezezkoa da. Nola lantzen ditugu
gure ekoizpenak, ondorioak eta esanahiak
eta munduarekiko eta bereziki artearen
munduarekiko elkarreragina?

Mintegi honetan, artistarekin, artearen eremuan,
indar zentrifugoetan eta zentropetikoetan,
objektuaren barrua eta kanpoa landuko ditugu.
Nola erreakzionatu gaur egungo objektuen eta
irudien etengabeko fluxuari? Nola eragin daiteke
elkarren artean negatiboan? Zein dira eragiten
dituen eraginak, bihurtune existentziala eta
haren eragin-zirkulua? Besteak, beste, post-
ready made, site-specific eta context-responsive
praktika artistiko garaikidean bizi diren sistemak
eta objektuaren eta bere eraginaren beharra eta
egokitasuna aztertuko dira.

2020

Urtarrilaren 13tik 16era

15:30tik -19:30era

REGINA DE MIGUEL-EN INGURUAN

Regina de Miguel (Málaga, 1977; Berlinan bizi da). Artista, idazlea eta ikerlaria. Objektu eta jakintza hibridoaren ekoizpena zuzendutako prozesu eta konbergentzietan lan egiten du artista gisa. Erakusketak egin ditu Berlingo Kunstraum Kreuzberg Bethanien; Berlingo Funkhausen; Bogotako NC Arten; Amerikako Estatu Batuetako Extra Cityn; Berlingo Haus der Kulturen der Welten; Bartzelonako La Capellan; Sao Pauloko Kunsthallen; Leongo Musacen; Londoneko Gaswerke; steirischer herbst festival gmbh, Graz edo Galeria Maisterravalbuena. Aldi berean, lan pedagogikoa egiten ari da hainbat testuingurutan: Tabakalera, Donostia; Espainiako Kultura Zentroa FF; MACBA, Bartzelona; La Gaité Lyrique, Paris; Hangar, Bartzelona eta CA2M, Madril.

Catábasis

REGINA DE MIGUEL

Etnografia ikerketa metodo bat da, eta estrategia nagusi gisa landa-azterketa erabiltzen du, laborategian lortu nahi diren gainera jasotzen diren datuak eta esperientzia azpimarratuz, kultura bat bere interakzio sozialean idaztearren.

Ikerketa-jarduera oro bezala, praktika politiko eta ideologikoa da, eta bere mugak diziplina eta jakintza-arlo askotara hedatzea lortzen du, bertan etnografoaren performatibitatea barne, eta baita bere galdetzea ere. Era berean, irudikapen poetikoak eta kritikoak gehitzeko gai da diskurtso etiko-moralari, diziplina bera elkarriketa-gune gisa planteatzeko.

Tailer honetan aztertuko dugu nola etor daitekeen metodo etnografikoa, modernitatearen garaian modu artifizialean bananduta dauden jakintsuen arteko mugak, modernitatearen garaian bananduta dauden jakintza ezberdinen arteko mugak, diluitzen hasten diren une eta errealitateak elkartzeko mekanismo gisa.

Norberaren diziplinaren mugak zalantzan jartzeko ariketak egingo ditugu, hainbat ingurumen-ekologiren bidez, hala nola, Atacamako basamortua, Antartidako Etsipena irlan, edo Kolonbiako oihana baketsua, besteak beste. Ariketa horiek prozesu atzean parte hartuko dute, hala nola auto-etnografia edo storytelling-a, biak bereziki erabilgarriak, ezarritako identitateak eta mugak zalantzan jartzeko orduan.





Annual harvest Future farmers - Limburg, Bélgica, 2014

2020

Otsailaren 10etik 13ra

15:30etik-19:30era

Heterotopiak: landa eremukoa eta nekazal eremukoa kultura alteritate gisa

MARC BADAL

Gaur egungo landa-ingurunean diharduten gizarte eta lurraldeetako dinamikien inguruan kultura-ekoizpenak egiten duen paperari buruzko azterketa kritikoa egiteko gonbidapena da tailerra.

Azken hamarkadetan, hiritartze prozesuak goitik behera aldatu du nekazaritzaren eta landa-eremuen egoera-eta baldintza-, beste eszenatoki bat ezarri du, non, landa-eremuen eta hiriaren arteko harremanak konnotazio berriak bereganatzen dituzten.

Koordenatu berri horiek ulertzea ezinbestekoa da nekazaritza eta landa-eremuetako kultura-menderakuntza historikoa iraultzeko eta horretarako estrategiak izateko. Era berean, lurraldean transformazio-tresna gisa ulertutako edozein kultura-proiekturen aukerak eta mugak aztertze beharrezkoa da.

Pentsamendutik eta idazkeratik abiatuta, lantegiak landa eremuko kultura-esku-hartzeari buruzko gogoeta bat egingo du. Horretarako, hainbat tresna erabiliko ditugu: irakurketa partekatuak, hausnarketa kolektiboko ariketak, proiektuen azterketa, landa-irteerak, etab.

MARC BADAL-EN INGURUAN

Duela hogeitaz hamar urte hasi zen praktika kolektibo eta mugimendu agro-ekologikoetan, elikadura sistemaren inguruko ikerketan, landa-historiaren eta nekazariaren kulturaren inguruko ikerketarekin. 2013az geroztik, Haziera-ko arduraduna da, Cristina Enea Fundazioaren hazien artxiboan (Donostia). Artikulu eta liburu ugari argitaratu ditu. Kanpoko Bulegoa izeneko artisau-lantegiko kidea da, landa-munduaren eta kultura-ekoizpenaren arteko muga esploratzen du.

2020

Martxoaren 2tik 7ra

15:30etik -19:30era

Punto de Vista Jaialdiarekin elkarlanean

Gonbidatua konfirmatu gabe

Uharteko Arte Garaikideko Zentroa eta Punto de Vista beste aldiz elkarrekin egiten dute lan, Festibalaren programazioan kokatuko den tailer praktiko bat antolatuz.

Punto de Vistak artista garaikide bat ekarriko du, bere lanaren oinarri teorikoak partekatzeko eta aztertzeko, eta gaur egungo ikus-entzunezko jardueri buruz hausnarketa egiteko, dokumentalaren eta ez-fikziozko eremuan barne. Laster tailerraren edukien informazio gehiago emango dugu.

PUNTO DE VISTAREN INGURUAN

Punto de Vista, Nafarroako Zinema Dokumentalaren Nazioarteko Festibala, mundo osoko ez-fikziozko zinemaren ezinbesteko ekitaldia da urtero, martxoan.

Tradiziorik ezberdinenak eta proposamen berritzaile eta ausartenak elkar hitz egiten duten gunea.

Dokumentalaren eta ez-fikziozko zinemaren adierazpen heterodoxo eta mugaldeko guztien inguruko ikusle, zinemagile eta kritikoen elkargunea.

Nafarroako Gobernuak sustatuta eta NICDO-k antolatuta, Festibalak bere XIV. edizioari ematen dio aurre 2020n.



PUNTO DE VISTA

2020

Martxoaren 30etik,

apirilaren 2ra

15:30etik -19:30era

Zona Franca

DAVID BESTUÉ

Tailerraren helburua eskulturaren esparruaren ezaugarri eta gai bereziak azaltzea da, hala nola materialaren erabilera eta kontzientzia edo moldeatzearen eta gorputzaren irudikapena. Horiek aztertu ondoren, antzeko beste diziplina batzuetako adibideen aldean ikusiko ditugu, esaterako, linguistika edo arkitektura.

Bereak eta beste batzuen obra ereduetatik abiatuta, David Bestuék aldi baterako egitura bat eraikitzea proposatuko du, guztion artean objektualtasunerako balizko bideak birplanteatzeko balioko duen interes-konstelazio bat. Planteamendu teoriko horretaz gain, tailerrak, ideia abstraktuak zehatzera eramateko ariketa praktikoak planteatuko ditu.

DAVID BESTUÉ-REN INGURUAN

David Bestué (Bartzelona 1980) eskultorea da. Egin dituen bakarkako erakusketa batzuk ROSI AMOR (Reina Sofia Museoa, Madril, 2017) eta Realisme (La Capella, Bartzelona, 2015) dira. Erakusketa kolektiboetan ere parte hartu du New Yorken (New Yorkeko Liburutegi Publikoan), Buenos Airesen (Universidad Di Tella) edo Bartzelonan (MACBA). Arkitekturari buruzko hainbat liburu idatzi ditu, hala nola Enric Miralles a izquierda y derecha (2010), Formalismo Puro (2011) eta Historia de la fuerza (2017). Egoitzak egin ditu Gasworks-en (Londres, 2010), De_sitio-n (Mexiko Hirian, 2013) eta Sao Pauloko Kunsthallen (Sao Paulo, 2016).





2020

Maiatzaren 11tik, 14ra

15:30etik -19:30era

AITANA CORDEROREN **INGURUAN**

Sortzailea, koreografoa, zuzendaria, kurioa, galderen, liburuen, janariaren eta gorputzen maitalea.

Judo gogor egin zuen lehen haurtzaroan, eta inoiz ez du borroka-arten azterketa utzi. Urte askotan dantzari tradizional gisa entrenatu zen, baina gorputz pentsatzaileen eta sorkuntzaren lengoaiak erakarrira laster erabaki zuen bere interesen norabidea aldatzea. 2006an Koreografo gisa graduatu zen SNDOn, Amsterdameko dantzaren garapen berrirako Eskolan, eta bi urte geroago Koreografian eta teknologia berrietan Masterra egin zuen, Dance Unlimited, Holandako hiriburuan. 2000. urteaz geroztik, bere proiektuak garatzen ditu, besteak beste, Europako, Ipar Amerikako eta Asiako hainbat hiritan aurkeztu diren pieza, instalazio, performance, koreografia, ekitaldi, film, bideo, testu, sukaldaritzako proposamen eta "gauzak".

Etxea (Iparra)

AITANA CORDERO

Etxea bilaketa bat, tratu bat, abentura bat, borondatezko hondamendia, "Beti ez da posible" ukatzen duen praktika. Birziklatzea, metatzea, alkimia, eraldatzea, erditze kolektibo bat da.

Lantegi/topaketa honetan, elkarrekin eraiki eta hitz egiteko ideari buruzko gorputz-entrenamendua proposatzen da. Honako kontzeptuekin jokatu da: eraikitzearen fisikotasuna, espazioen sorkuntza, bizitzeko modukoa, etxea, lankidetzak, intimitatea, nekea, errepikapena eta janak prestatzea.

Zein espazio alternatibo sor daitezke desio komunak eta eraiki eta hausteko ekintzak konfrontatzeko? Non egongo da orduan konforta, sustraia, intimitatea, partekatzea? Lantegi honetan, besteak, beste, ibili, izerditu, dantzatu, eraiki, suntsitu, eta izkinak, txokoak, oskolak eta amuletoak asmatuko ditugu eta dastaketak, isiltasunak, husteak, nekeak eta objektu asko egongo dira.

Hainbat egun ikertu nahi dituenak, performerrak, sortzaileak, dantzariak, aktoreak, arkitektoak, diletanteak, aktoreak, arkitektoak, berriak, igeltseroak, dekoratzaileak, gorputzen kurioak, espazioak, sormen-prozesuak eta gauzak.

2019

Azaroak 4-7

RISOGRAFIA HASTAPENA (II)

MARI CAMPISTRON

Abenduak 16-19

EKOIZPENA ETA EGOKITASUNA PRAKTIKA ARTISTIKOAN

CARLOS IRIJALBA

2020

Urtarrilak 13-16

CATÁBASIS

REGINA DE MIGUEL

Otsailak 10-13

HETEROTOPIAK: LANDA EREMUkoa ETA NEKAZAL EREMUkoa KULTURA ALTERITATE GISA

MARC BADAL

Martxoak 2-6

PUNTO DE VISTA JAIALDIAREKIN ELKARLANEAN

Gonbidatua konfirmatu gabe

Martxoak 30 - Apirilak 2

ZONA FRANCA

DAVID BESTUÉ

Maiatzak 11-14

ETXEA (IPARRA)

AITANA CORDERO